

# Parisetik

Paris, 1987ko abenduaren 1a

Kaixo ama:

Gaua izarrik gabeko hotel usaintsu batean igaro dut, egunsentian, beste tren kutsakor bat itxaroten ari nintzela zuri gutun honetan zer idatzi finko pentsatzen ibili naiz. Eta bat-batean, hemen naukazu, denboraz zikinduriko geltoki batean, papera eta boligrafoa eskuan ditudala, han, Euskal Herri urrunean utziriko amari zer esan ezin asmatu.

Trenaren soinu zorrotzak beste geltoki huts batera noala gogoratzen dit, beste lurralde batera, Euskal Herritik urrun; eta han ere, egunerokotasunaren barne dudak bakardadea izango dudala lagun pentsatuz.

Tren geltoki asko ikusi ditut etxetik alde egin nuenetik, jende asko, kale-poeta asko euren kantuz bizia aurrera ateratzen... baina ni larru merkeko maletatxo bat aldean hartuta, beti bakarrik, bakar-bakarrik nabil...

Bi urte badira azken aldiz ikusi zintudanetik, eta uste dut, jada, badela garaia egia osoa jakin dezazun, zure alaba aurrean ez duzun arren, behingoz ezagutu dezazun.

Jaiotzez izan naiz hezikaitza, eta zuk badakizu hori; badakizu, alferrik engainatzen zenuela zure burua alaba zintzo bat zenuela esanez, astero mezetara joaten zen horietakoa zela pentsatuz. Bazenekien hori ez zettorrela nirekin bat, ni aske jaio nintzela, ez nintzela faltsukeriaren besoetan eroriko. Zuk, ordea, ezin izan zenuen beso luze horien besakadatik alde egin eta zurikeriaren bizitzara ohitu zinen, egunero mezetan lehen eserlekuetan esertzean, alaba paregabea zenuela pentsatzean, eta jendearen jokoari birak ematen jarraitzean, inoiz askatuko ez zenuen korapiloa areagotzen.

Baina korapiloa ez zen hor hasi, nire haurtzaroan sumatu nituen askatasunaren lehen egarri ziztadak.

Gogoratzen dut gaztetan, lehen zigarrotarako adina iritsi zitzaidanean, nola derrigortzen ninduzun familiako ohiturei jarraitzea, besteen aurrean ongi gelditzea... ni neure pentsamenduekin jaio nintzen eta badakit heriotzaraino izango ditudala buruan; alferrik ari zinen horiek aldatu nahian. Gizarte horrek ez nau onartzen ama, eta badakizu ez naizela horren erraz onartua izango.

Nerabezaroan, Arantxaren lokalera joan ohi ginen gazte piloan. Han konturatu ginen, ia guztiok genituela pentsamolde eta ideologi berberak. Arratsalde haiek nire pentsaera erabat finkatu zuten, bakarrik ez nengoela jakinarazi zidaten. Behin, Donostiara joan ginen hango lagun batzuekin egotera eta hantxe ezagutu nuen Gorka. Gorka ni baina 3 urte zaharragoa zen eta lehen momentutik konpondu ginen ondo. Mutil jatorra zen, zuri noski ez zitzaizun bat ere gustatuko, Gorkak beti esango zukeelako pentsatzen zuena. Baina niri bai, atsegin zitzaidan, bere hitz egiteko modua, bere irribarrea, begiradako ilusioa... Gerora askotan elkartu izan ginen, batzuetan hondartzara joaten ginen itsasoa eta zerua non musukatzen diren asmatzera; edota, gau osoak igarotzen genituen elkarrekin zerura begira, izarren hizkuntza isila entzuteko gogoz.

Gorkak ordea, bazuen nor maitatu, eta ni Maiteren itzalean gelditzen nintzen, ez nuen itzal horretatik ihes egiteko bidea aurkitzen.

Zuri gauza gutxi argituko lizuke eskutitz bat utzi eta etxetik alde egin nuenean, Gorkaren etxean egongo nintzela esateak; hark beso zabalik hartu ninduen eta gau asko igaro genituen batera; neskak lagunarekin ez zebilen oso ondo eta niregan aurkitzen zuen beharrezko kontsolamendua. Gau haietan Gorkak emandako laztanak ez ditut nire bizitza osoan ahaztuko.

Hark erakutsi zidan poesia idazten, hark erakutsi zidan nor bere kabu izaten, baita askatasuna norberak daramala eta alferrikakoa dela inguruan bilatzea ere.

Etxe txiki eta zikina zen arren, ez naiz inoiz hain beteta, hain seguru sentitu.

Baina nire zorteak ere amaiera izan zuen. Gorkak bere neskarekin egin zituen bakeak eta ni soberan nintzen han. Momentu horietan txori bat kaiolan sartuta, arrai bat uretatik kanpo, tximeleta bat hegorik gabe; horrelaxe

sentitzen nintzen; giltzapetua, arnasarik gabe, hegoak moztu balizkidate bezala, nik bien haien artean ez nuen zentzurik.

Beraz, horietako egun batean, poltsa zahartu batean nire jabeko ziren gauzatxo apurrak sartu nituen, arropa batzuk eta ezer gutxi gehiago; atetik ihes egin aurretik aurpegira begiratu nion. Hain zen ederra, hain zen jatorra, baina bestalde, nola espero nezakeen berarekin egotea betiko? Nola bere begietako berdetasuna niretzat soilik izatea?

Atea itxi nuenean, sentsazio garratz bat sentitu nuen, ito behar ninduen korapilo bat banu bezala. Ez nuen gehiago ikusi.

Hurrengo bi asteak beste lagun batzuekin igaro nituen okupaturiko pisu zahar batean. Argirik ez genuen, ezta urik ere, baina han horrek ez zuen axola, han itxura baino zerbait gehiago ikusi nahi genuen elkarrengan, baina hura ez zen niretzat eginiko bizimodua.

Gau batez, hotzez esnatu eta leihora hurbildu nintzen. Zerua urrezko izarrez josia zegoen eta unibertso amaigabe hartan galdu nuen begirada, baina nire buruan Gorka zegoen, bera zen nire urrezko koroa zeraman izarra. Eta ez nuen une hartan Maiteri ematen ariko zitzaizkion musuetan baino pentsatzen. Izarpean negar egin nuen.

Gau hartan, ihes egin nuen trenbideren geltokirantz. Donostiako kale isiletan barrena eraman nuen pausoa geltokiraino.

Ez zen jende asko han, eskaleak eta gutxi gehiago, baina azken batean ni ere. Zer espero nezakeen handik?

- Hendaiarako billete bat
- ¿Cómo dice?-galdegin zidan leihatilaz bestaldeko neska ilehoriak.
- Un billete para Hendaia – erantzun nion
- ¿Ida y vuelta?
- Ez... no, ida solamente

Txarteltxoa eskutan hartu eta trenean sartu nintzen, zikin zeuden bazterrak, argi gutxi... eskuineko eserlekuan eseri eta kristalaren bestaldean Euskal Herria atzean uzten nuela ikusi nuen, gauaren ilunpean zeuden zelai berdeak, baserri zaharrak, itsaso zabala... eta nolabait, herria atzean

utziz nioan heinean, nire barruan zerbait hil zen, edo jaio, batzuk herri mina dela diote... auskalo.

Hendaiako geltokia pasa, eta geltoki guztiak eskua emanda igaro zitzaizkidan begi aurretik, non nenbilen ia jakin gabe, harantz eta honantz ibili nintzen aste batzuk.

Nire diru iturri bakarra izkina batean jendeak eskuan uzten zizkidaten limosnak ziren, eta oraindik, hala jarraitzen dute izaten. Trenaren txistuari zain gelditzen naiz eskua luzatuta txartela erosteko dirua eskuan izan arte.

Hala ere, ama, azken aldian kezkatuta nabil... Donostiatik ihes egin nuenetik ez dut izan hilerokoa, nire sabelean zerbait ote? Egia esan, ez dakit zer pentsa. Askotan, kantoi hotzean esertzean, tristurak irensten nau eta ez dut jakiten geroak nola erantzungo didan, baina nire barnean fruitua balitz? Gorkaren azken agurra barnean banerama? Maiz sorbalda bat falta zait negar egiteko, herrimina eta nire egoerari malkoak oparitzeko.

Agian horregatik idatzi dizut, barrena hustearren, orain eskua daramat sabelera, trena urrunean entzun dezakedanean.. zerua izango dut sabai eta kalea lur, baina ziur egon, nire barnean zerbait bada, ez diodala utziko faltsukerian erortzen, datorrena badator, bere bizitzako erabakiak bere gain izango ditu.

Bien bitartean, agur bat Leireren partetik. Agur bat eta ez gero arte bat.

Musu bero bat, eskutitz hotz honen bidez

LEIRE

Ainhoa Imaz Iturrioz  
DBH 4